

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
90n. ZENBAKIA
URRILLA
1985**



**BILBO'KO UDALETXEA
ARGI TA GARBI**

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1.985 - 86 IKASURTEA

AMAZORTZIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK : ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN

EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK : GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA : 8.000 peseta

IZENA EMOTOKO . TOKIA : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14 - 2

BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

18.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS : LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS : MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO : 8.000 pesetas

INSCRIPCIONES : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

SARTALDEAN KARRANTZA

ENE KARRANTZA

Euskaldunak gure erria ezagutzeko guraria izatea, ez da arritzeko gauzea. Ba-dau Euzkadi'k bere sartaldean ikusgarria dan lurralde bat, baserritarren lurraldea dan Karrantza.

Iñoz andik ibilliak giñan gure gaztaroen, baiña ordutik ona ogei ta amar urte luze igaro dira eta lurralde ori astiro ta zeatz ikertzeko egarri bizia barru-barruan geunkan. Orregaitik aurtengo udaldian, beste aukera guztiak alde batera itzita, Karrantza'ra joan giñan, bost egun an igaroteko.

Ostatu-etxe lez El Molinar deritxon erritxuan Lekaide Paloti'tarrak dauken uguztegi balnearioa artu genduan: Etxe ederra, inguru eder eta baketsuak, bultzia alboan dala... toki baketsua benetan.

* * *

JAZOKIZUN ONEKO AMA

Gure lenengo ikustaldia, entzute aundikoa dan Jazokizun Oneko Amari egin geñtsan: Muñogaiñetxu baten irudi aundi ta ederra, inguruan arrizko jesarleku ederrak, ikuspegi arrigarria eta bakar-leku zoragarria. Toki gitxi izango dira Euskalerrian otoitz egiteko "El Buen Suceso" esaten dautsoen Amak aukeratu dauan au baiño obeak.

Irudiaren ingurua burdin-ariz ondo zainduta dago, baiña barrenean erritarrak euren baserrietan eta eleizearen inguruan baketsu bizi dira: Aundikeri bako jentea. Antxe dago zezen-plaza txiki bat be eta iraillean jai-ospetsuak egiten dabez karrantzatarrak.

Bideari aurrera jarraitu ezker, mendi ibilgarriak aurkitzen dira, naizta euliak eta mando-euliak azpergarri izan, abere-leku areitan ulertzekoa dan lez. Mendi-gaiñetik, Alen-ingurura urreratuz, ikuspegia zabalago biurtzen da, Karrantza osoa begien aurrean ikusgarri agertzen dala.

RANERO'KO MEATZ-TOKIA TA AITXAK

Ranero mendi-barrenean dagoan baserri apala da, askotariko etxe-aberez ondo ornidua.

Pizka bat aurrera jarraituta, Pozalagua'rena deritxon meatz-tokia aurkituko dozu. Meatz-tokirik iñoz ikusi ez dogunontzat ikusgarria da baiña aspal-dion geldi dago. Neurki batzuk atzerantza biurtu eta Karlostarraren bidea aurkitzen da eta bide oneri jarraituz, aitxarterik aitxarte mendi-gain ederrera eldu eta alde batetik Santander-aldeko bazterrak eta bestetik Bizkaikoak eder agertzen dira.

* * *

SANTEZILLA TA BIAÑEZ

Karrantza-ingurua baserri txiki askok osatua da, ogei bat baserri bai. Guztiak aberegintzara ta lurgintzara makurtuak. Erri bakoitxak bere eleizatxua erdian dauala. Abade Frantzisko'tar euskaldunak dauke erri onetako eleiz-ardurea.

Santezilla aldapan eskegita lez dagoan etxe-moltzoa da: eleiza polita, antxiñako santuak, aundiak eta txikiak, ugari. Eleiz-ondoan ikurdi ta gutziko basetxe eder bat, arri landuz eregia. Biztanle alaiak eta txera ona egiten dakienak.

Bidez aurrera jo, bideak ugari eta naikoa onak dira izan be, Biañez erri jaun-girokora eltzen gara: Eleiza ederra eta alboan lekaime-etxea.

* * *

KONTXA-KARRANTZA

Karrantza aran edo ibarrak ba- dauko bere uriburu, kale batzuk eta udaletxearen aurrean bere plazatxua dauala. Beste erriak baiño aundiagoa da eta urrean dauko zoi-erreak egiteko dan lantegi bat be, naizta eragin aundirik agiri izan ez inguruetan.

Abereen azoka-lekua ta artu-emonetarako aurre-rapen batzuk be ba- dira emen, Izparringiak saltzeko

lekua be bai, baiña gure irakurgai izaten dan DEIA ez genduan aurkitu, bear ba da arin saldu zalako, ala ez dakigu gitxi eltzen diralako.

Jaikiña dan lez, ez da euskerarik entzuten baiña oarrak eta norabide-geziak eta olakoak euskeraz be irakurri leikez ikertzaille euskera-zaleak.

* * *

PANDO TA BERNALES

Uriburutik Koltza'rantza jota, Pando erritxua aurkitzen dogu, inguru zabala eta ainbat basetxe pizka bat sakabanatuta. Kilometro batzuk aurrera jarraituta, bidezabala ain ona ez izan arren, baserri geiago arkitzen doguz eta baserritarren isiltasun aundiaren giroan eta sendi lez solo ta landa-lanak egiten, Santander-aldeko doiñu berezia daukon gaztelerea isiltasun aundi orren urratzaille lez alkarrari egiten.

Bide txar batetik gora ta gora egin eta mendigallurean dan Bernales'era eldu gintzazan. Bakarlekuan diran etxeak eleizearen ondoan isilik batuta geu onartzeko bizi-giroan agertzen ziran. Eleizak emen eta beste erririk geianetan itxita aurkitzen dira eta giltzaren billa ez astearren, sartu barik urrindu bear izaten genduan errietatik. Ateetan Karrantza guztiko eleizearen diru-goraberak eta barriak irakurteko erea izaten genduan.

* * *

LANZAS AGUDAS-ALDEAKUEBA-PRESA

Len esan dogun lez, orain ogei ta amar bat urte karrantzan izan giñanean, Lanzas Agudas'en igaro genduan aste osoa, baiña gaur ez dautsogu lenge antzik artu: Eleiza aundi bat apurtuta, beste bat egokia goa illerriaren ondoan.

Lanzas Agudas'era eldu giñanean, Santiago Apostoluaren jai-eguna zan eta santu au erri aretako zaindaria da. Jai-giroa aurkitu genduan ba, baiña mezea beranduago zalako, beste erri batzuk be ikusi gura-eta, alde egin genduan.

Bide-aldi bat egin ondoren Aldeakueba'ko eleiz ederraren aurrean geratu giñan eta antxe izan genduan Lekaide Frantziskotarra aurkitzeko zoria. Mezea amaitu-barria zan eta ainbat eleiztar etozan etxerantza. Andik San Esteban errira joan giñan lekaide adiskidea eta biok eta erri onetan mezea esa-

teko aukerea eskiñi eustan lekaideak eta pozik bete neban zeregin ori, bera laguntzaille nebala. Abesti batzuk euskeraz be abestu genduzan. Gero, Lekaide adiskidea Lanzas Agudas'era joian artean Presa'ra igon genduan. Mendi-gaiñean dago erri au be eta Karrantza'ko beste leku askotan lez ikuspegi ederra dauka. Ostatu-etxerantza bidean San Ziprian eta Matienzo ikertu genduzan: Benetako isil eta bakar-lekuak.

* * *

SANGRIZES LANESTOSA

Gure solas-aldia amaitzeko, azkenengo egunean eta Burgos'en iparraldetik Errioxa'ko Labastira joateko, Los Tronos Mendiatea igarota, Karrantza'tik urten baiño lenago Sangrizes ikertu genduan eta ango abadea lenagotik adiskidea genduan lez, maitekiro artuak izan giñan. Biok batera Lanestosa'ra jatsi eta erri au ikusi ondoren, Karrantza maiteari agur egin eta esandako bidea artu genduan.

Ainbeste erri polit ikusi izan arren, lau beintzat ikusi barik geratu jakuzan: Ahedo, La Kalera, Soskaño ta Sierra. Beste urte baten izan bearko dau.

Agur, Karrantza maitea, ibar zabala, mendi ederez inguratua, Euskalerriko Autrigoiaren ondorengoan bizi-leku gogoangarria, baserritar zintzo ta txera onekoen bizilekua. Agur.

OLAZAR'tar Martin



Karrantza'ko "El Molinar"en lekaide Paloti'tarrak egoitz eder bat dauke. Udaldirako toki egokia. Or egun batzuk igaroten dozuzan artean, Euskalerrriaren zatia dan Karrantza ezagutzeko erea izango dozu.

ITURRIAGA'TAR PATXI: AGUR...

Gizon-emakume azkarrak, jakitunak izan eta be, bakanak izan badira euren egikuzunetan, nai-ta lan bikaiñak egin batpere norberakeri ta euren buruak erakutsiteko asmo barik, tamalez laster izaten dira aztuak edo gitxi batzuk baiño gogoratu gabeak, eta ainbat geiago euren jakituria batez be euzkera arloan izan bada: Oneitariko bat dogu Iturriaga'tar Patxi Kimi-zale, osagailari ta euzkera arloan oso jakituna zana.

Igaro zan Dagonillean 21'ean il zan Algortan, ainbat illabetea gaixo zitalak guztiz ezereztu ondoren. Eta ordutik ona egunaro egon gera adi gure izparringietan beratzaz zerbait, ondo irabazita eukan zerbait idatziten baeben, baiña, lerrotxu bat be ez iltxarteletik geiago, naita euzkera arloan asko egindako abertzalea izan.

Patxi, ez ainbeste ZER'eko irakurleantzat baiña, beste euzkal-irakurleantzat ez-ezaguna izango zan, naita berak Bizkai'ko Sendalari "EUZKERA TAL-

DEA"n sortzalle ta lanik geien egin dauan bat izan, bertoko euzkera arloan aurrenengoa zalako.

Azkenengo ZER onek aipatutzen euskun lez, Martin gure zuzendari jatorraren bitartez, ainbat urte diarduen "EUZKERA TALDE" onek, Sendalari iztegi bikain bear-berrakoa idatziten dau. Eta, zela-koa izango zan Patxi'ren euzko-gogoa! Ba'ekian zer gaiso eukan eta aldi luzea baiño len berak eroango ebana ta, beraren ardurea zan, zelan jarraituko ete eban berak ainebeste urtean ekiñalak egiña zan iztegiak. Ori da euzkera ta beren edertasuna maite izatea.

Azkenengo urteotan, Larrabatzu'n eukan bere osagaitegi edo farmazia, naita Algortan bizi zan.

Asko geiago idatzi geinke abertzale zintzo azkar onetaz, baiña, goazen Jainkoak emon dautsan betiko atsedenean bakez lagaten. Gero-arte, Patxi, abertzale zintzo, euzkaltzale jator eta adizkide miña. AGUR ta gero-arte.

ALTUNA'TAR JOSU

BERBA BAKARRA

Munduko argi ganera
Irauliko ba-giñake,
odolaren ur loa eratzeko,
lurraren esku ganean.

Barruko ixiltasunen
argitasunen ganera
irauliko ba-giñake,
une-aldi bakoitzean
sakonago landutzeko,
ta gizonaren narruaren
iritzia emon gero.

Itxarote orduetara
irauliko ba-giñake,
asmo baten araldiak
iruntzi al izateko,
buruzkeratzen dana lez
beren eres musikara
ur ertzean xurgatzeko.

Irauliko ba-giñake
oldoztuten dakin toki
eta, bere ur ertzean
itxitako aztarnara
lurrari itzultzen dakon
berba bakarra gaizkatuz.

Or aurkituko genduke
bearbada, argi gardena,
gizonaren narruaren
irirzpen ta azalpena,
itxarotako eguna
oldozkun, lorratz, aztarna
eta, biotzaren taupada
laburtuta itz bakarran
izate orok bizitzan
gogoz beti ditxarona
ben-benetan... MAITASUNA.

MUNIATEGI-TAR SABIN

LAU URTEKO NEURE BILLERAK

(VIII)

Nitzat piñuetako unerik txarrena, bazkalosteko lo sumea izaten zan. Eguraldi txarra, bustia-edo ez bazan, zugatz ondoren baten urrean etxuten giñan, apur baten lo apur bat egiteko. Nire lagunak laster egozan zurrustadaka, ta lanerako jagitean begiak gorri-gorri eukiten zituen. Baiña nik egundo ez neban begirik itxi ta nitzat une a infernua izaten zan. Zelako oldozkunak eukiten nituan! Geienez aste batzutarako alde egiten gendualakoan etxetik urten genduan eta urte bi geroazan erbestean, atzerrian. Ta bititza ona izan ezker danik-eta ama zuloena be egin egiten da edozein lurraldetan. Baiña zelako bizimodua gurea! Prantzia'n ez geunkan bizia aurrera ataraterik; España'ko gudeak ez eban amaitzeko itxurarik eta beste guda andiagoren baten bildur zan jendea. Sekula biurtuko ete giñan, gero, etxera? Oldozkun oneik ezin izaten nituan burutik kendu etzunda begi zabalik gora begira igaroten neban bazkalondoko aldi areitán

Andik kanpora ez nintzan geiegi larritzen kontu oneikaz. Gazteak giñan eta bada-ezpadako bizimoduari arpegi emoteko adiñik bizian bada, gazte denporea da. Sabela apur bat bete ezker, erosotasun barik bere biziko giñan urte batzutan.

Bein gauza barregarria igaro jatan basoan. Lurralde areik guttiz legorrak dira. Eguraldi txarragaitik lanik egin barik geratu giñanik ez naz gomutaten. Galduko genduzan kontixu, baiña ez gomutate au, egun gitxi izango ziran ezaugarria da.

Eguraldi ederrak izaten genduzan geienetan; goizgoizetan iruntz gogorra ta gero, bero. Egunik geiena eguzki galdatan izerdi patsetan igaroten genduan, batez be arratsaldea. Origaitik, bein bazkaldu ezker ura edaten ez giñan geratzen. Zugatzetik zugatzera eskuetan iru tresna geroazala joaten giñan: aizkorea, azala-kentzekoa ta ur botillea. Ta bakotxaren ur botillari deangada egin ta zugatz ondoan laga ta ekin lanari.

Bein, sail barri baten lanean asi giñanean, bidezabalaren ondoan iturria egoala konturatu giñan.

Beraz, antxe artuko genduan edateko ura; ta bazkalondotan laurok txandaka uretara joango giñala erabagi genduan; egun baten bat, urrengoan bestea ta olantxé

Aurreko egunetan besteak egin eben zeregin ori ta nire txandea bere eldu zan. Bazkaldu genduan, agan jatekoa nebala joan nintzan. Kilometro erdi inguru geunkan iturrira ta bazkaria egiten genduan lapikoagaz joaten giñan uretara. Illuntzean ezer ez zan gelditzen.

Ba-mentorren ura artuta kantu kantari ta oi! okerreko bidetik nenbillen, bidea sarratzen urten eustan zugatz batek esaten eustanez; bada zugatz a ondo ezagutzen neban, etxeruntzkoan beti bere ondolik igaroten giñan-da. Bai! ez zan oker andia. Geienez be zearka eun neurkin egin eta, azkutuko neban bidea. Ta asi nintzan okerra zuzendu naian. Baiña biderik ezin arkitu. Atzera, aurrera, ezkerre ta eskumara egin arren, ezin nintzan bidean sartu. Nik uste neban baiño geiago okertu nintzan lenengoan kontixu eta gero bedarrak estaltzen eban bide-txiñor aren gaiñetik igaro arren ez nintzan konturatu. Baiña —tira!, an egoan bidea, alako baten. Jarraitu neutsan bideari ta bide-gurutze batera eldu nintzan. Baiña lengo ainbeste atzera-aurrerak nastauta laga ninduen eta ez nekian zein artu geure lan tokira joateko. Ta lagunak ez zirala urrun egongo ta didar andia egin neban: ¡Teodorooooo!

Ez neban erantzunik izan. Ezker aldera baserri bat ikusten zan, oiñez amar miñutu inguruko bidean. Baserri a urrunetik ikusten oituta gengoan; bagenkian bide-zabal ondoan egoana. Beraz, baserri aretara eroango ninduan bideari jarraitu, gero ara eltzean bide-zabalera urten eta ura artzen genduan iturri aldera biurtuaz geure lan tokira eroango ninduan bidean barrien-barri asi. Orixe zan neure asmoa.

Baiña baserri aretara eltzean, an ondoan bidezabalik ez egoala iruditu jatan. Baserrian norbaitzuk biziko ziren ustean joan nintzan baiña an ez zan

nabaitzen ezer bizirik. Inguru guztietatik sasiak ito bear eban etxe zar bat zan. Dana zan beroa ta ixiltasuna. Mamarruen burrundarea besterik ez zan entzuten.

Gure Lizardi andiak be olakoxe giroan idatziko zituan bere URTE GIROAK ENE BEGIAN olerki liburuko bertso oneik:

Ango kixkalbearra ango marmarra
Ego-begi izaki ta aizeak garra;
irakin diraki, beroz ezezik
erleen goeok yo ta násirik.

Baiña aria eten barik eldu deiodan lengoari. Base-
rri aretara joateak be argitasunik ez eustala emon
ikusita, oraindik len baiño galduago neure burua ikus-
ten neban. Ta estutu egin nintzan. Ordurarte, urez
betetako lapikoari kirten bietatik elduta jira-bira guz-
tiak egin nituan, baiña orduan, jaurti neban ura ta
lapikoa esku batetik dindilizka nebala, bizkor asi nin-
tzan lengo bidean. Eta miñutu asko baiño len an nen-
goan len aitaturako bide-gurutzean. Nik ez nekian
iparraldea nun zear egoan, nun egoa, nun sortaldea ta
nun sartaldea. Ta nun zear asi ez nekian eta len baiño
didar andiagoga egin neban lengusuari deituaz; eta
erantzunik izaten ete neban adi-adi nengoala, ¡rras!
jagi zan Teodoro, nigandik irurogei neurkin ingurura,
didarka nor ete ebillen ikustera. Ikusi nebanean barre
algaraka joan nintzan beragana. Ta, nire lengo ibille-
rak edestu neutsazanean, lenago be beste didar bat
entzun ebala erantzun eustan.

Arratsalde aretan ur barik konpondu giñan.

Sekula ez naz izan lanari iges egitekoa. “Trabaja-
dorietan” be al neban guztia egiten neban eguneko
alobera errialtxo bat bakarrik izan arren. Ta nire
“trabajadore” lagunak egiten ez baeben, ez nintzan
konpromete izaten, ezer lanik ez zala erakusten-da. Ni
baiño inusenteagorik!

Egia esateko, piñu lanetan ez zan alperrik. An ez
zan agintzaille bearrik. An ez zan kontu ta barriketa-
rik; an emon eta emon al ebanak al eban guztia. Ta ni
baiño geiago edozein zan, ni baiño sendoago edozein
zan-da. Baiña ni ez nintzan aseten, beti geiago nai
izaten neban. Egunean iru bidar jaurtitzen genduzan
zugatzak. Azkenengo, egunean bertan amaitzeko
lain. Neu nintzan bat jaurtitekoa ta lagunak ogei jaur-
ti bear zirala esaten baeban, nik ogetabi edo ogetalau

jaurti bear zirala erantzuten neutsan eta jaurti be bai.
Gero, bein baiño sarriagotan, illuna gaiñera etorkigu-
la ta amaitu ezinda ta basoan illunean txarto ibilli ez
geintezan, lana amaitu barik laga ta aguro urten bear
izaten genduan.

Piñuetan egon bear banintzan, alik-eta irabazirik
andiena atara nai neban. Baiña al baneban iges egin-
go neutsan lan ari, bai orixe!

Eta iges egiteko bidea agertzen asi jatan. Nire
koñatu Lorentzo’k Bilbo ta Ipar-aldea Gobernuakoak
galdu ebenean, Frantzia’ra iges egin al izan eban.
Gerotxuago, ordutik laster Ingalterra’ra arrantzara
joateko aukerea izan eban eta ara joan zan; eta nik
eskatu barik diru apur bat bialdu eustan: bi edo iru
libra esterlina. Aurrerantzean be noizik bein bialtzen
baeustan, lan egin barik (piñu lana, esan nai dot) kon-
pondu neintekean. Ta nire gurari au jakin eragiten
idatzi neutsan Lorentzo’ri. Bere erantzuna pozgarria
izan zan nitzat. Bialduko eustala bear neban dirua.
(Ez neban bear asko.)

Nire lengusuak be aspertuta egozan piñuetako
bizimodu aregaz. Ta zein ez? Ta lagatea erabagi gen-
duan. Piñuetara baiño len be laguntzea izaten eben
eta aurrerantzean be nok lagundu ez eben paltauko.
Ta San Juanetarako Donibane’ra biurtzea erabagi
genduan an gelditzeko. Oraindik iru illabete paltau
ziran. Ez jatan laburra izan aldi a. Beti buruan, zen-
bat egun paltau ziran; naita be ezin burutik kendu
kontua eroatea.

Burdeos’en lau egun eginda biurtu giñanean nagu-
si barria billatu genduan. Españiarra zan bera; ziur
gu lez lenengoan piñu ebagiten ekindakoa.

Ordurarteko piñurik andienaa ebagi genduzan
beragaz eta baktzeko sei libera ordaintzen euskuza-
la uste dot. Oneikaz, piñu andiokaz ez giñan errez
ibiltzen serreagaz lana egiten genduan bikotea. Ez gen-
duzan menperatzen. Beti nengoan gure eziña aoan
nebala, baiña beste biak jaramonik ez eben egiten.

Sekula baiño txartoago ibilli giñan zugatz jaurti-
ten egun baten. Bat, jaurtitean, zutiñik egoan beste
baten gaiñera joan jakun. Au ez da ezer; bein baiño
geiagotan edonori jazo oi jako. Baiña bigarren ori
ebagitean biak beste baten gaiñera jausi jakuzan. Ala-
korik! Iru zugatz alkarrerri musuka. Ez dakit zelan
lurreratu genduzan.

GUDALDIA

Gure aldrako beste biak serreagaz asteko konturik ez baeuken be zerbait erabagi bearra izango eben. Nik neure aldetik, artu neban erabagia. Lagunak itxi.

Gure ugazabagaz, beste batzuen artean, lekeitiarrik lan egiten eben. Egia, geiago be ba-ziran lekeitiarrik an eta lenengoan alkarregaz lan egiten eben; baiña diñodan aldian aitaturako biak alde eginda egozan besteakandik. Prantzes bat lagun barik, bakarrik egoan; eta lekeitiarrik ebagitakoak egiten zituan. Zugatz baktxari adarrak moztu ta zuritzea, erdia, iru libera emoten eutsen lekeitiarrik prantzesari.

Neuk be lan a modu aretan, egingo neban. Berba egin neutsen eta baietz erantzun eusten lekeitiarrik. Lagunai neure asmoa agertu neutsen eta biaramonetik asi nintzan bakarrik lanean.

Eztabaida txikienik be ez neban izan lagunakaz. Itz batik be ez eusten erantzun eta auzi onezaz sekula ez genduan berbarik egin, ez piñuetan eta ez andik alde eginda be. Aurrerantzean be jan kontuan batera jarraitu genduan. Eguerdian ez giñan batera egoten eta neure ontzian eroaten neban neutsako bazkaria, danontzat egiten genduan lapikotik artuta.

Arein eta nire lantokiak ez egozan alkarrengandik urrun eta ba-neban Rafael'en serra laguna nor ete zan jakiteko guraritxo. Ta bein, ixilka, urreratu egin nintzaian eta zugatz artean neure burua gordeta zelatata begiratu neutsen. Karlos zan Rafael'en laguna.

Ez dakit nire alde egitea sentidu eben ala ez eurak, baiña nik neuk tamaltxoa sentiduten neban.

Baiña gero be nitzat ez joaizan gauza guztiak nai lez. "Ez da munduan arrosarik arantzarik gabe" esaten dau abestiak, eta alantxe da. Serriari agur egin neutsan baiña an be kontuak ziran. Ni baiño geiago zan prantzes lanean; oituago egoan eta sendoagoa zan. Gaiñera, erremintak, aizkorea ta azala kentzekoa obeak eukazan. Ta olan, esprintean geiago diran txirrindulariak bidean sarren bat dagoala ikustean ekiñaldi gogortxo bategaz lagunari aurea artu ta saria eureganatzen daben lez, arek be bardin samar

giñoiazala zugatz txikiren bat eratsi ebela ikusten ebanean, olako itxurarik egin barik baiña tapa-tapa joaz, aurea artzen eustan eta zugatz polita berak artu.

Baiña ez neukan zer esanik. Tokia edo lagunak aldatuta be ez nintzan barriro marmarrean asiko. Gaiñera ezin esan eitekean prantzes arek zikin jokatzen ebala; ni baiño geiago zan eta bere alagaz baliatzen zan.

Baiña, ze arraiio! Ez zan estututeko kontua. Aurrera joiazan denporak. Geienez be iru-lau aste egingo genduzan piñuetan. Beraz, asarre itxurarik ez genduan agertuko iñoren aurean.

Azkenengo egunetan lan barik geratu giñan. Ez genduala piñurik jaurti edo lurreratu bear esan euskun piñu jaubeak. Nai izan ezkerro beste lan bat eskeiñi euskun: len zugatzai kenduta lurrean egozan adarrak neurri baten ebagi, neurkin kubikoa onenbestean.

Lan barri aretan ez egoala irabazi andirik ikusi neban saiorik egin barik. Oitutakoan egunean ogetamar libera irabaztera elduko giñala esan euskun berak. Ta guk, iru-lau egun barru andik alde egiteko ustean gengoanok, ez geunkan orrenbestera elduterik. Beraz, ez joatea erabagi neban. Nire lagunak osterata beste eretxikoak ziran; joan eta saioa egin barik ezin jakin eitekeala, ta joan egin ziran. Baiña laster jakin eben an ez egoala irabazirik eta alperrik zala ara joatea. Eguerdiraiño egon ziran lanean.

Goiz bat galtzea ez zan ardura andiko gauzea. Baiña Karlos lagunak ebagi txiki bat egin eban atzaparrean. Txikia, zentimetro bat luze ingurukoa; baiña tendoiari ikutu egin-edo, zirkiñik egiten ez ebala geratu jakon atzaparra. Ez dakit denporeagaz ondu ete jakon bere gatxa.

Orduantxe amaitu ziran nire piñu lanak.

KAMINAZPI

MENDEZONA'REN ABADETZAKO 50N. URTE-URRENA

Amaitu dan illearen askenengo astean izan da, gizon ospetsu onen omenaldi bat egiteko astea.

Bere taldekoak ta generako gazte, ikasle, gurasoak aste osoan euki dabez batzarrak, itzaldiak, bazkariak ta abar bere izenean.

Gure Uri nagusiko Aginpide guztiak omenaldi orretan egon dira aldi baten edo bestean.

Lerro onein bitartez gure "ZER" be alkartuten da abade ospetsu orren omenaldiagaz, apur bat goralduteko.

Biotz biotzetik, egun alaiak igaro dagizala ta urte askotarako izan daitela Euskalerrriaren alde lana egiteko ta gaste askoren onerako.

AZKENEZ

Indautxu'ko ikasleak, euren ikasketaren amaieran, eskari asko ta aundiak eukiten dabez.

Langintzetako Zuzendariak azkar ibiltzen dira, urtearora amaitu baiño len, ikaslerik onenak euren lantegira eroateko.

Orrek esan nai dau, lanpostua ziur daukiela, ikasagiriak onak izan ezker.

Ziurtasun au ikasleentzako garrantzi aundikoa da.

Zergaitik? Aziera on-ona, berezia eukiten dabelako berton.

Ganera azkenengo urteetan, urteera asko daukiez lantegietara andik illebate batzuetara zelako lana egin bear daben jakiteko.

Zenbat ta geiago ikusten daben, obeto men egin-go dabe.

Orrezaz ganera, mutillak bizkortuteko, jokabidea obeto eroateko, zintzoak izateko euren zer egin bearrean, bulegoko ate ganean ipinita dago esaera au, izki larreakaz:

Erderaz: No te importe quién eres,
sino hasta dónde puedes llegar.

Euskeraz: Ez ardurarik izan zer zaran,
Noraiño elduko zaran baiño.

Apur bat gogoketan asi ezker, jakituria oso aberatsa da.

Gazte askorentzat ziztailu ta pizgarri aundia be bai.

Batek baiño geiagok esango dau: Jokabide ona eroan eskero, urrun elduko naz. Olako asmoak egoak ipinten dautsez askori.

Olako mutillak eltzen dira gorengo mailletara.

Barriz gure PERNANDO MENDEZONA'ri:

Zeure Abadetzako x)n. urte-urrengoan:
Zorionak ta urte askotarako
Zeure lanpostu orretan. Agur.

Bilbo'n 1985'garrenoko Epaillaren 17'an.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

EUZKO - ENDA

Euzkalerrian jayo, zanetan euzko odola,
Euzkeraz itz-egiten... Ondiño ezta naikoa.

Asabaen bizi izateko, aren antzekoa.
Zu be duiña izateko, aren antzekoa.
Uriko irri farra-jai otsatik aldendu.
Gallur aize garbia ta bakartasunak
Apaindu eben antziñan, euzko-gizon Jatorrak.
Garai izugarrizko-egiñak ixillian
eginda, aitzurik dagoz, oin, euren izenak.

Euren buruen aintza billatu ezebenak.
Danak bakian bizi anaitasunean.
Ludiko biztanlentzat gerturik euzko-odolak
"O" ikurra ta baietza, dauko geyenetan.

Mundu onetako ospiak guzurrezkoak dira;
Euren atzian dabiz bakarrik zoruak.
Berez andia dana egiten da txikia...
(Zeru-lur Egillea, asto baten ganean sartu zan Jerusalem uriko jayetana!).

Biotz andi ta apala, kistau ona bezela
bizi, ta izango zara gaurko Euzkelduna.

UTARSUS

BERNARDO GARRO, "OTXOLUA", OLERKARI

Itxultzaille ederra dogu Garro; Mundaka'n munduratu zan 1891-VIII-22'an eta berton eta Bilbo-n bizirik, 1960-IX-14'an. Il aurreko urteetan sarri alkar ikusten genduan Gorbeia'ko mendi-bazterretan, oso menditar eta aize-zale zan-eta. Mendiaren, itxasoaren eta euskal izkuntzaren edertasunak ziran geienbat gure autugaiak, iñoiz amaitzen etziranak. Barruan daroaguna, aoz esaten. Musika-zale zan txistua ta gitarra joten ekiana.

Umetako griñak nekez iltzen. Nik idatzi neban beñola: "Gure txikiak, kale ertzean edo-ta itxas-egian moltzoka jarrita atso zaar maiztuak zebiltzaten berriketa ta mormoxak entzutea eder zuen nunbait; itz-gaizto, irain eta aiñen-biraoak sarri egozten omen zituzten abots-biurkera ta soin-dardarizu ta paristaz. Garro gaztea aieri belarriak itsatsita egoten omen zan, kukuka bezela; orduntxe jaso zizkigun ark zeinbat ipui, esaera, esaldi, supite, itz-zuur, aien ezpanetarik bera konturatu gabe irtenak ez gutxi. Benetako auzi ta korapilloak erabilli zituan, ortaz, itzulpenak egiterakoan; kalean ikasi zuen aditza bere aldietan etzan, ziur asko, eskolan erderaz ikasten bat zerorrena beintzat. Euskeraz ta erderaz kalean entzun eta ikasia irabiotu oi zuen bere kautan eskolan aditzen zuenakin berdinduz. Orrela egin zuen, alegia, bere elebitza. Bietan ederki mintzatzen zan, baita idatzi ere" (*Euskal Literatura*, IV, 107 or.).

Euskal garra ekarren barne. Gazte zala gipuzkoar gazte batzukaz artuemona izan eban; baita euskal nobela batzuk irakurteko erea be. Añibarro'ren *Eskuliburua* gogoko izan jakon, berak diñoskunez. Izparringi, asteroko, bertso-paper eta olakoak, barriz, aspertu barik iruntsi oi ebazan. Era orretan, euskera-zen zirkinzulo guztiekin jabetu zan gazetetatik.

Emeretzi urtedun zer-edo-zerk eraginda Argentina'ra joan zan. Zetara? Lanera? dakiguna, zera da: zazpi urteren buruan Mundaka'ra biurtu zala barriri, "euskaldun internazionala" eginda, ain zuzen. Euskal-erri osoko euskaldunakin itz egiteko gai zala etorri jakun etxera. Bere idaztietan be orrela agertzen jaku.

Euskaltzaiña zan. Ikas-griñak aurrera garoaz sarri, ta Garro be sortzetiko min ezin eutsi orri jarrai-

tuz, ikasi ta ikasi ibilli jakun. Eta idazteko lera? Noiz sortu jakon? Ortarako une berezi bat bear, akulu eragillea. Niretzat euki nebazan irakasleak izan ziran bide, ni idazle izateko. Otxolua'ri —ezizen au atsegin jakon berari—, berak diñoskunez, Kirikiño'k emon eutson aukera, 1924'an. Batzaldi bat eratu eban onek, itz ezkerretik eskuira naiz eskuitik ezkertera bardin irakurten diranen sariketa. Ibillia atzera egitea nunbait. Kirikiño ona gauzai guztiz emona zan, idazleak sortu ta bizkortzeko berebiziko gaiak zirala-ta.

Garro'k pilloa bialdu eban batzarrera, onakoekin osoturik. Ona bi: "An atzo arro zana, senarren esanaz orra otzana"; "Aita, itxi aita"; orrelaxe eun esaldiraiño, neurkera guztikoak. Baiña esaldi bi besterik bialdu ez ebazan andereiño batek irabazi eban leiaketa-saria, esaldi bata izan be konkurtsora azaldu zirantatik luzeena izan zan, eta saria luzeenarentzat iragarrita egoan. Garro'k aipamena izan eban.

Euskal idazle

Gerorakoan, bere bizitzaldi guztian kontixu, Mundaka inguruko albistak eta barriak bialdu oi zituan astero Bilbo'ko "Euzkadi" egunerokora ta "Euzkerea" aldizkarira: agerkari bi oneitan azalduko ditu bere lanik geienak. Erriko izparrak beti etozan ipui, jazoriko edo edesti-txatalen batekin amai lez txukun jantzita. Bertsoz be ainbat olerki ta alegitxo ditu biotan. Batzuk bere kabuz egiñak, eta beste batzuk ingelesetik-eta itzuliak.

Ona Garro'ren lanik beñenak:

"Euzkerea"-n: 1) *Voronoff'ek be ezin duana* (192?); 2) *Bijar Donlane-ra* 2) (1929); 3) *Ortuzar'tar Errobusten jauparija* (1929); 4) *Nai dogune* (1930).

Gero itzulpen eder bat emon euskun, goralpen aundiak artua eta oraintsu be bigarrenez argitara emona: *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarrijak* (Bilbao, 1932), *Verdes Atxirika'tar Emeteri'ren irarkolan*. 183 orrailde, azken iztegi luze bategaz. G. Cessare Della Croce italiarrak idatzia euskeraz. Itzulpen au, zatika, "Euzkadi"-n agertu zan lenengo.

“Euzkadi”-n: 1) *Pisti patariak* (1934; 2) *Kurutze eginda dagon lekuan* (1935); 3) *Abere dontsuak* (1936); 4) *Euskalerriko abere-piztiak*; 5) *Abere Ipuñak, kontu-kontari esanak*; 6) Lapurditar J. Barbier'en “Ixtorio-Mixterio”, ipuin sailla; 7) *Euskerazko Toki-izenak* (Euskera, 1956); 8) *Lau Ebanjelioak*, I. Goma'ren “Evangelios concordados” euskeraz, oindiño argitaldu barik.

Idazle ontzat jo eben bere garaikoak. Eta orrela da, izan be. “Ona-idazten dau Lizardi’k—, ezin poli-kiago ari dan idazle bat... Otxolua'ren idazki mamia, Mundaka’ko berriez ta zenbait goxoki geiagoz ornitua... Bizkaiera giartsu egokia oi derabil,ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkai aldean ditu idazle bikaiñenetakorik irudi zait” (*Itz-lauz*, 1934, 88 or). Eta Orixe’k: “Lagun eta irakasle dut Otxolua... Euskalerrri guztiko idazleen artean txukunenetarikoa”.

Olerkari

Olerkari legez be egin euskuzan bere saioak. Badaukaz poesi bitxi arinak, berak bere jitez egiñak eta itzuliak, ingelesetik eta portugaleratik. Eta kanta letrak ugari; txistua, gitarrea eta pianua jotzen zituan Garro’k, eta kantatzeko bear ebezanai letrak berak jarten eutsezan. Onakoak edo:

“Kabeliña, kabeliña,
kabeliña biotzkoa;
nire maitetxuagana,
nire maiteagana oa”.

Noizik bein izan oi ebazan gitarrea artu, Iparragirre lez ibilli ta bertso barriak saldu ta kantatzeko tentaldiak. Baiña “ez gagoz Iparragirre'rena egiteko” esanten eban.

Nik onako lau sartu nituan neure “Milla Euskal Olerki Eder” liburuan, au da: “Neure ondotxutik

nora?”, “Lander maitemindua”, “Itxaro, txoritxo” ta “Jai-li-li”. Irakur egizu eurotatik bigarrena, ots, “Lander maitemindua”:

“Bidaztiak udan gerizara,
ur baretan untziak aizea...
Batze bere landerrak

[billatzen

al dauan lez abaroa:
mundu onetan gogait egiñik,
jasan bai dot asko samiñik,
ene biotz gaizoak zugana
bultzez, maitea, naroa.

Izan zakidaz abaro,
geriza ta aize naro
ene bizitza lander samin
[onetan.

Itxi egidazu uste izaten
izango gareala, egun
[baten, zu nire erregin,
ni zure senarra ta jopu
[benetan.

Oi, nire atsegin!”

Esan dogunez, zazpi bat urte erre ebazan Argentina’n, gazte zalarik. An ezagutuko zituan “gau-txoak”; “Baneban nik izan” deritxon poesian beintzat alako baten erostak abesten ditu. Ona poema orren zatiño bat:

“Baneban nik izan,

baneban;

zaldi bat

txikar-oriskea,

zaala ta mizkea;

“Petiso” edo dana-dala neritxon,

iñoiz ezin geldirik egon,

bizkorra zalako,

ta lasterra, oi ez lako;

“musuz-atze”-ren aldia emonda be

lasterketa guztiyeta bera zan yabe.

A zan zaldiyaren yayua,

neure zaldi-txiko “bayua”!

AITA ONAINDIA

ARTEAGA'N. TITULUDUN JENTEA

Guzurra dala esan geinke, baiña egia da, Arteaga'n nai ta erri txikia izan, lenago milla ta piku biztanle eukazan eta orain, zaspireun inguru bakarrik, euren seme-alabari emon eta emoten dausiela, titulu bat bizimodua aurrera errezago erroteko.

Ta ganera tituluak mota guztietakoak dira, bera-go ikusiko dozuen bezela.

Or etorriko dira Injenieroak, Abadeak, Arkitektoak, Osagilleak, Buruzagiak eta abar.

Toki askotan egon naz, olako erri txikietan be bai, baiña orren-beste tituludun gizon ez dot aurkitu iñun be.

Ori baiño erri askoz andiagotan, bat edo bi baziran, naiko da.

Zer esan nai dau gauza onek?

Zelan antolatzen ziran, lenago, Institutoak eta Unibertsidadeak ain urrun egonda?

Nundik ateraten ebezan txanponak, iru, lau edo bost seme-alabari ikasketak emoteko, gizondu egin daitezcan?

Arteaga'ko baratzetatik bakarrik ez beintzat.

Derriorrean beste lekuen batetik etorri bear iturri ugari ori.

Erri ontako jenteak beti euki dau leia, edo sua edo gogoa ludi guztia ibilteko eta ikusteko.

Orregaitik, emengo gizon asko ta asko itxas zabal guztietan ibilli ta uri asko ikusita, ango eta emengo aurrerapideak noberanatu eta gero euren etxean ta errian ipiñi dabez.

Asko ibilli danak, asko dakiela diño. Ta egia da.

Itxas-lana saila ta gogorra da, etxeakoak ez dabez ikusten ango nekeak, bakarrik ikusten dabez txanpon ederrak datozela etxera ta kitu.

Emen gelditzen diran andrak ondo bizi izan dira euren gizonai apur bat lagunduta etxeko baratzetan nai daben kasketa guztiak beteta.

Baiña ango diruak eta emengoak pillo aundia egi-ten dabelako danak ondo bizi, ta baltza onena semeei emon, bizimodua aurrera aterateko.

Gazteak ikasketa egin da gero, gizondu, urtetan dabe ara edo ona, lanera, ta geienak lanpostu enenetaikoak aurkitzen dabez.

Saso onetan lenago baiño askoz errezagoa da tituluak emotea.

Orain Institutoak, Unibersidadeak bertan daukaguz; ganera erriko jente asko Uri-Buruan bizi dira negu aldian, etxetik ikasketak egiteko.

Sendi geienak Uri-Buruan daukiez etxe politak, len lana ugari egin dabelako ta txanponak eskuetan daukezelako.

* * *

Bein zabarkeri bat euki neban Kanale'ko elizkoruan.

Nire asmakeria izan zan, meza denboran, an gogozenetatik zenbat giñan tituludunak, zenbatu ta amalautik amar giñan tituludunak.

Ez dot uste beste orrenbeste jazoko zanik edonun.

Kanala'n baserriko gentea zan geiena eta jentea angoa zan.

Orain lerro onetan ipiñiko dodaz, Arteaga'n jaio dan jente tituluduna, aintxinekoak eta oraingoak; norbait aiztituten bajat, parkatu, ez da izan nere errua, baizik, eziña.

Injenieruak: José Tellería, Juan Aldamiz, Alfredo Mendezona, Juan C. Mendezona, Fernando Zabala, José M.^a Muñozguren, Alberto Aboitiz, J. Antonio Olabarrieta, Julio Gáldiz, Carlos Orueta.

Etxe-Egillea: Anastasio Tellería.

Osagilleak: Federiko Muruetagoiena, Jaime Muruetagoiena, Federiko Muruetagoiena (semea), José

Gáldiz, José M.^a Aldámiz-Etxeberri, José M.^a Zubiaga.

Abadeak: Luzio Lamikiz, Angel Naberan, Adolfo Naberan, Luis Andonegi, José F. Izpizua, Eduardo Arriaga, Fernando Mendezona.

Notarioak: J. Ignacio Aldámiz, Ignacio Gomeza, Rikardo Gomeza, Mario Zubiaga.

Itxasoko buruzagiak: Agapito Mendezona, Rikardo Iturri, Ignazio-Beotegi, Roke Enzunza, Jabier Aberasturi, José M.^a Gondra, Rikardo Gomeza (aita), José Erezuma, Pío Aldámiz-Etxeberria, Juan José Arroategi.

Maisuak: Josefa Ozámiz, EngraZia Mirandona, Juan K Aramburu, M.^a Luisa Mendezona, M.^a Ignazia gomeza, Zezilia Ziluaga, Basabe (alabea), Agustín Etxeberria (euskera).

Maktinistak: Jabier Zabala, Manu Iturri, Abel Izpizua, Javier Iturri, Jesús M.^a Sarrikolea, Marzial Balenziaga, Roke Aberasturi, Imanol Izpizua, Manuel Aberasturi, José Antonio Uriarte eta Juan Miguel Basabe.

Peritoak: Ziriako Urkiri, Anton-Aldámiz Etxeberria, Jon Labirua, Imanol Zabala, José M.^a Uriarte, Lorenzo Uriarte.

intendentes merkantiles: Julen Labirua, Gotzon Labirua, Ignazio Tellería.

Idazleak eta olerkariak: Sabin Muniategi, Asier Muniategi, Aingeru Zabala, Jesús Naberan.

Praktikantea: José Beaskoetxea.

Gertutzaillea: Teodoro Bilbao.

Buruzagi arrantzalea: Migel Angel Uriarte.

Pianistak edo Soiñu jotzailleak: M.^a Angeles Tellería, X. Iturriaga, Elisabet Naberan, José Beaskoetxea eta Abeslari ospetsua.

Telegrafu-zaiña: X. Sarrikolea.

Begira eizue, nun aurkitzen dozuen, orrenbeste tituludun erritxo baten.

Oneik dira erri polit bateko jakin-nai edo berri minak.

ARTEAGA UDEA EMOTEKO TOKI EDERRA

Len ta orain alde polita, argia, epela, udea emoteko.

Zergaitik? Zugaitz artean bizi leikelako, piñu artean, aize bigunean.

Ez dago olarik, ta orduan eguratsa zikindu edo kutxadura barik dago.

Beste aldetik egun osoan, goizetik gabera, eguzkiak bete-betean jotzen dau lurralde guztia.

Edozein tokira joan ta aize garbia, usain gozoa ta biguna aurkitzen da. Edonun izadiaren usaiña.

Nai ba dozu pelotan egin, an daukazu frontoi ederra, ta orain diño beste bat egin bear dabela, baiña aterpeagaz, neguan be olgetako.

Erritik kanpora, andik bost kilometrora dozuz itxasoa laidan, urgarbia, leku nasaiak edozein gauzatarako.

Orretaz ganera, urrun joan barik, erri ondoon, itxas adarra, bost minutuan oñez joan laitekena, nai badozu etxun eta egon bedar bigunen ganean, an daukazu, nai dozunean buztiaaldiak arzteko ur epela, ikusgarria, zure gorputzari poztazun bat emoteko.

Astelenetan, Gernikara erosketak egiten, jentea ikusten, baskari ta askari ederrak egiten eta orren ondoren Pelota Partidu eder bat Ikusi be bai. Dan danetara, berebillean minutu batzuetan joan zeiteke.

Olan udea emon ta osasuntsu biurtuko zara Bilbo'ra negua osakaibarik Igaroteko. Alan egin daizula eta aberatsa izango zara.

ETXEBERRITAR, ISIDOR



BIZKAIERAREN II ASTEA

Joan zan urtean lez, aurten be, Bizkaieraren astea antolatu eta egin da Loraillaren 6'tik 10'ra eta igaz lez, oso jende gitxi bildu giñan bertan. Zer jazoten da? Nun dagoz Bizkaieraren zeintzailleak eta zaleak? Nun Euskerazaleko ikasleak?

Euskerazaleko arduradunak antolatzaillak izan dirala kontuan artzean eta an bertan Bizkaieraz ikasten dagozala jakitean, arrituta geratu nintzan lenengo egunean ain jende gitxi ikusteaz.

Lenengo eguneko itzaldian, Puxana'tar Pedro izan zan izlaria eta bere oitura dan lez, Bizkaiko aditza bere agotik, atsegiñez entzun genduan, euskera argi ta garbi baten.

Urrengo bi egunetan zoritzarrez, ezin neban itzaldietara joan baña 9'an bai eta egun aretan, Olazar'tar Martinek eskeiñi euskun itzaldia. Bere gaia oso interresgarri eta jakingarria zan eta niri asko atsegin jatan baña gauza bat esan bear dautsot Martin jaunari: Euskaldunbarriak be, bagengozala itzaldian eta bera-

ren itzak ostera ez zirala guretzat erri-eraz baño, orregaitik eta abotsa zabaltzeko tresnarik ez egoalako, gaiari buruz, geiago jakin guraz geratu giñan orrelako itzaldietarako aukera gitxi daukagulako.

Beste orrenbeste jazo jakun Berrojalbiz'tar Juligaz, bere gaia ezagutzen ebenen lagun artean egoala irudian, baña guretzat be garrantzi aundia eukan eta gauza ta zeatzasun asko jakin eta ulertu barik, geratu giñan. Orrez gañera, nire errian (Sestaon) antolatu eta zabaldu zan ikastolari buruz, ez eban ezer aitatu, oso zeatza ez da baña 1967 edo 68garrenean zala uste dot. "Eusko-lorak" dantza taldeko lekuan asi ziran ipur-pekoakaz, lurrean eta neguan otz-ikaraz.

Itziar Manterola Sestaoko lenengo andereñoa izan zala badakit ziur eta berarengandik nire lenengo euskerazko itzak ikasi nebazala bebai, eta beste gauza bat, andereño obeagorik ez dodala barriro ikusi.

Ortik aparte, bi izlari oneei gauza bat eskatuko neuskioe: Zer aldizkarian euren itzaldi edo laurpen bat barriro esan dagiela, izan daiteke?

PALMI'K

EMONGO DEUTSUT

Ez deutsut emon, maitetxu,
nire biotzaren giltzik;
—txoriak maite, abia—
ez dau nai gizonen itzik.
Ez neutsun emon, maitetxu,
eskubide ein aundia;
txori-kantak maite ditut,
maiteago goi-bizia.

Emongo deutsut, emongo,
noizbait ni naizen guztia,
batera lortutekotan
betikotasun zuria.
Ez deutsut emon, maitetxu,
biotz neurearen giltza.
Giltz orrek euki dauka-ta
zerutiko urre-bitsa.

Emongo deutsut, emongo,
maite-laztan eta mosu
biontzat gora-bidea
zeuk eskintzen ba'deustazu.

E. ERKIAGA



LAUOINKAN

Zidarrezkoak orkatzak,
urre-ariz txalma ertzak,
itzaldun, arro oa.

Ugelik gabeko griña
dok ire zaldi ariña,
ago-burdia bakoa.

Nora ain ibil zoroak?
Sena dandarrez daroak.
Ez aiz urrun elduko.

Alper lauoinka azkarra
galdu dok eta izarra.
Laster aiz zaldipeko.

A. BIDAGUREN

Afrika-sorkaldean ibillaldi bat

*Ogei milla kilometroko oporraldia
1975'eko dagonillan*

PEÑA'tar Xabier'ek

Bai, 20.000 kilometroko ibillaldia egin dogu aurtengo oporraldian: Euskalerritik Paris'era joan-etorria 2.000 km. Paris'tik Nairobi'ra joan-etorria 13.000 km. Kenya ta Tanzania'ko lurraldeetan 5.000 km. Orra 20.000 kilometro, guztira.

Uztaillak 30: eguaztena

Arratsaldeko 8-retan urten dogu autobus batean Bilbo'ko lagunak. Astiro baña ondo eldu gara Donosti'ko geltokira. An dagoz, gure zain, gipuzkoar lagunak. Ter-bultzian (ordubeteko atzerapenez) Hendaya'ko geltokira. Bero izugarria. Izerdi patsetan guztiok, eta egarri biziz. Bultzi-ogetxoetan etzunda, Paris'era.

Uztaillak 31: eguena (Iñaki Deunaren eguna)

Austerlitz geltokira eldutean (goizeko 8-retan), lenengo ezbearra edo nekea: gure zain euki bear genduan autobusa inundik agiri ez. Xebe ta biok «metroa» artu ta Air France'ra goaz, zer jazo dan jakiteko. Autobusa an egoala diñoskue, baña guk zein zan jakin ez... eta aren txoperra gure billa saiatu ez. Beste autobus bat bialtzen dabe, arin, eta dana antolatzen da, ta naigabea uxatu. Place de la République ondo-ondoan dagon Hotel batera eroan gaitue (Hôtel de la Paix et de la République deritxona). Zar itxurako hotela. Taldeko geienok (18) alkarrekin bazkaldu dogu, hotel-inguruan dagon ostatu batean (Le Bock Lorrain). Ondo bazkaldu... ta azken ohea, Iñaki Deun eguna dala-ta «osaba Iñazio'k» txanpaña

eskeiñi dauskulako. Urte askoan, Iñazio!

Arratsaldean, taldeka, Paris'en zear ibillaldiak. Guk, Etoile, Champs Elysées, Concorde, Tuileriak, Louvre ta Notre Dame ikusi doguz.

Nik, gero aspaldiko lagun bategaz egon bearra neukan. Adiskide aundi izan giñan guda-aldiko urte larrietan, biok Tarbes'en erbesteratuta bizi giñala. 32 urte dira ez dogula alkar ikusi! Hotele-
ra etorri yat, alkarrekin afaltzera joateko. Benetako pozaldia izan dogu biok, orduko goraberak (gozoak eta mingotsak) gogora ekarriaz. Berak dakian ostatu batera berebillean goazela orra nun ikusten dogun Xebe, bakar-bakarrik, kale alde batetik bestera igaroten... Miraria dirudi! Irurok afaldu dogu alkarrekin, ostatu dotore batean.

Egun osoan sargori. Beroak jota, guztiok.

Dagonillak 1: barikua

Gosaldu ondoren, barriro be, Paris'en ara ta ona, taldeka. Guk, Sena-ibaian ontzi-ibillaldia. Ondoren, aurre-eguneko ostatu berean bazkaldu.

Lauretan autobus batean, Orly'rantz abiatu gara, gure «tresneri» guztiaz. Orly'n egonaldi luzea, zurrut eta zurrut, egarria kendu eziñik.

Zazpiretan sartu gara «Jumbo» egazkin aundian, baña zortzirak jota urten. Itzelezko egazkiña da: 483 lagun goaz, «etxekoak» kontuan sartu barik. Jarleku guztiak beterik. Gure taldea, atze-atzeko iru lerroetan. Paris'-

tik Nairobi'ra 6.475 kilometro dira, ta egazkada baten egiten dau, inun be gelditu barik. Zazpi orduko bidea, ta bai eroso! Afaldu ta... edan eta edan. Gero, zinea gura dabeneztat, ixillean, baña geienak lo egin gura. Bai egin be, zorioneko batzuk!

Dagonillak 2: larunbata

Bere orduan, zintzo-zintzo, or lurreratzen da gure «Jumbo» ederra Nairobi'ko egazlekuan. Goizeko bost eta erdiak dira, bertako orduz. Embakasi deritxo Nairobi'ko egaztokiari, ta ederra da. Uritik 18 kilometrora dago. Or dagoz, atarian, Highways Ajentziakoak gure zain, lau berebil politekin. Oi diran eginkizunak bete ondoren, berebilletan sartu ta Heron Court Hoteler a eroan gaitue. Uritik kanpora dago, ta barria da. Gosaria artu ondoren logelak banatu dauskuez. Eta batzuek lotara joan dira: beste batzuek uri aldera joan gara, zerbait ikusteko asmoz.

Ordubatetan bazkaria. Ez txarra, baña serbitzua oso motel. Swahili izkuntza ikasten asi gara: «jambo» andik eta «jambo» emendik, edonun eta edonoiz alkarri agurtzeko: «asante sana», barriz, eskerrik asko esateko. Baltzak, bai andrazko ta bai gizonetzko, begiko ta atsegiñak iruditu yakuz. Euren artean eta an bizi diran atzerritarrekin be, beti swahilieraz egiten dabe, ingleseraz asko edo gitxi geienak jakin arren.

Nairobi

Kenya'ko uriburua. Orain dala 75 urte sortua. Ordurarte ez

KILIMANJARO

egoan erririk, ez aundi ez txiki. Burdinbidea egiten asi ziranean, langilleentzat bizileku batzuk egin ziran eta... orra gaur Afrika Sor-kaldeko uririk nagusiena biurtu! 300.000 biztanle. Itxasotik urrun (Mombasa'ra 500 kilometro).

Itxas-maillatik 1.650 metro gorago. Ekuador lerrotik 200 kilometro ego-aldera. Afrika'ko biotzean dagoala esan leiteke. Orra: Nairobi'tik Alexandria'ra (Afrika'ko iparmuturrean) 5.200 kilometro; Nairobi'tik Capetown urira (egoaldeko muturrean) 5.900 kilometro...

Uri zabala da, barri itxurakoa. Erdiko kale nagusietan, saltoki aundi ta onak, Diruetxeak, Hotel ederrak, elizak eta abar. Jenderik geiena, baltza; inditarrak be, askotxo; zuririk gitxi turistak kendu ezker. Saltoki geienak hindutarren eskuetan aurkitzen dira.

Erri gazte ta bizkorra dirudi, etorkizun aundikoa. Arpegiak alai, irribarrea errez, gizarte atsegiña. Umetxoak, zoragarri, begi aundien begirakada gozoaz. Neskatilla geienak, gonolabur eta margo bizidun soñekoz jantziak. Askok, ule-lan arrigarria buruan. Berebillen joan-etorria ez da txikia; errietarako autobus ugari, zar itxurakoak. Ezker-aldetik ibiltzen da, Ingalaterra'ko oiturari jarraituz. Katedrala barria da:

Orain dala amabost urte eraikia. Aundia, baña otza. Edozein ordutan ikusi leitekez baltz fededunak, otoialdi egiten. Jai-egunetan, barriz, ikusgarria da, kolore biziz jantziriko neska gazte ta umetxoak mezatara doazela. Gizonetakoak be ez gitxi.

Bazkalondoan uri-ikustaldia egin dogu berebillez. Mezkita bat, erriko lorategi ta kirol-zelaiak, eta azkenez, sugeen museo: antxe dagoz, bizirik, kaiolentan, inguruko suge mota geienak: aundi, txiki, gorri, orlegi ta bal-tzeranak, baita tortugak eta muskerrak be.

Dagonillak 3: igandea

Goizeko amarretan meza bat izan dogu, Don Ino'k esana, Katedralako elizgelan. Mezea, euskeraz, tartean martean erderazko azalpen batzuekin. Sinisgaitz egin yaku meza bitartean ain urrun gagozala gogoratzea... Meza ondoren, uri barruko kale nagusietan ibillaldia, ta zabalik aurkitzen diran denda batzuetan erosketak. Hotelean bazkaldu ta, ordubietan, uritik 15 kilometrora dagon «Kenya'ko Bomas» ikustera joan gara. Izen orrek, «Bomas», baltzen bizilekua esan gura dau, ta antxe dagoz turistai erakusteko egiñak. Laiñu edo errialde bakotzak bere etxe egikera berezia dauka. Sei ikusi genduzan: 1) Taita erritarrenak; 2) Masai ospetsuenak; 3) Mijikenda; 4) Luo; 5) Kuria; 6) Kisii... Geienetan, zortzi-amarren bat etxetxo; bat, nagusiena, sendi-buru edo gizonarena; inguruan, emazteenak, seme-alabenak, janaritegiak; erdiko itxitura batean, abereategia. Guztiak antzeko, baña ez bardin.

Ondoren, an bertan, areto biribil aundi batean, baltzen dantzajaldia ikusi dogu. Ikusgarri izan da.

Hotelera itzuli, atsedean alditxo bat artu eta afaldu egin dogu. Eguraldiaz arriturik gagoz guztiok: egun osoan zerua lañoz estaldua egon da. Ibilteko giro ezin ohea. Au da au! Euskalerritik urteteen eta Paris'en izan genduan beroa! Eta emen, Afrika'ko biotzean, berorik ez, ia ia otz... Txamarrak eta jersiak erantzi barrik goizetik gaueraño. Sinisteziña!

Dagonillak 4: astelena

Gure safari dalakoaren asikerea gaur dogu. Safari izen orrek ibillaldi, txango, esan gura dau. Goizeko bederatziak lauren gixtiagotan urten dogu Nairobi'tik, bidezorro ta maleta guztiak berebilletan sartuta. 170 kilometro Namanga errira. Bide ona. Ordu bi. Giro ederra: eguzkitan baña

bero aundirik ez. Biderik geiena lur gorri, sabana izenez ezagutzen dana. Alboetan mendikate apal batzuk, zelaia baña 500 metro gorago. Lur landurik ez, abereak ugari, masai artzaiñak zainduak: bei, bei-antzeko, aunts eta abar. Masai lurretan gara.

Namanga erria Tanzania'ko mugan dago, baña ez dogu igaroten. Ordu-erdiko egonaldia egin dogu, masaitarren esku-lanak ikusi ta erosiaz. Gero, ezkerralde-ara jo ta Amboseli lurraldean sartu gara. Auxe dogu ibillaldiko lenengo pizitegia. Bidea, lurrezkoa, berantza doa; 75 kilometro, bide txar orretatik, Amboseli Safari Camp ostaturaño. Bide-alboetan abere batzuk, baña ez asko: gnu, gazela ta orrelakoak batez be. Edonun, aizeak eraginda, auts lurrunkadak jasoten dira lurretik. Ordubatetan eldu gara Camp orretara. Ez da erria, ta hotela be ez. Zelai batean, etxolak, lerrokadan zabalduak. Erdiko etxean, jantokia. Etxola bakotxean, oialezko atea, ataritxo bat aurrean daukala; barruan oge bi, maitxoa ta jarlekua; atzekaldean, beste etxola txikiago batean, garbigelaxoa, dutxa, komuna ta guzti. Etxolen tellatu ta ormak lastozkoak dira. Oso atsegin izan yaku guztioi onelako lekua.

Arratsaldean, ordu biko joan-etorria berebilletan, auts-bideetatik ara ta ona. Abere ugari ikusi dogu: gnu ta astonabarrak (zebrak), millaka; elefante, jirafa lepaluze, rinozeronte, hiena ta orrelakoak, nozean bein. Leoirik ez ete? Or gabiltz, jirabiraka, nun ikusiko piztien errege ori... Alako baten, lorratzak lurrean. Ortaz, ez dira urrun. Ta orra, leoi-sendi ederra gure begien aurrean. Urre-ratzen gara. Argazkia andik, argazkia emendik. Eta iñoiz aitzuko ez doguna ikusi dogu: leoi-emeak eizean. Gnu bakar bat arrapatu nai dabe. Leoi-eme bat aurreratzen da lenengo, astiro-astiro, ta metro batzuk aurrerago etzun egiten da: Beste bat abia-

tzen da geroxeago, goragotik, eta gauza bera egiten dau. Irugarrena gero. Laugarrena atzean gelditu da, gudaketa batean aizekaldea zaintzen geratzen dan gudaritaldea bezela. Ba-doaz aurrerantza eizari trebeak, gnu gaixoaren bila... Baña ez dogu azkena ikusi al izan. Leoi areik ez dabe gure ardurarik. Euren zeregiñaren ardurea baño ez. Eta guri poz emotearren ez dira ariñago ibilliko. Astiro ekingo dautsoe euren zeregiñari. Guretzat, baña, illunabarra da, ta ostatura itzuli bearra dogu. Eizearen azkena ikusi ez arren, pozaren pozez gagoz, leoien eiza-jokabide ikusgarria urre-urretik begiztatu dogulako.

Afalondoan, etxolen aurreko zelaian billera atsegiña egin dogu, su aundi batzuen inguruan. Suok eta argi batzuk gau osoan egoten dira izeturik, piztiak urreratu ez daitezkan.

Dagonillak 5: asteartea

Goizetik jagi gara: seiretan. Eta lenengo aldiz, orra, Kilimanjaro mendia ikusten dogu, tontorra edurrez zuritua, irudietan ainbeste aldiz ikusi dogun bezelaxe. Ta apur bat arturik, ba-goaz barriro be, gure lau berebilletan, Amboseli'ko piztitegian beste ibillaldi bat egitera. Aberetegi onek 100 kilometro luze ta 30 kilometro zabal ditu: 3.400 kilometro lauki. Bizkai bat eta erdi aiñako lurraldea. Ba-dauka, beraz, nun ibillia. Eguraldi lañotsua ta otz xamar. Bide ondoan hiena talde bat, odolzale, ildako gnu bat jaten. Gero, abestruz batzuk eta rinoceronte bildurgarriak. Txakal bat edo beste. Basidi edo bufaloak...

Amboseli lurralde au, geien bat, eremu antzekoa da. Zabalgu-ne aundia, ur gitxi, landara ta bedartza urri. Zelan bizi ete da orrelako lurretan ainbeste abere? Aragijaleak arazo erreza daukie: aundienak txikiagoak jan eta kitu. Baña bedarjaleak? Ainbeste milla gazela, astonabar eta gane-

rakoak? Eremu orretan, etorkizunik bai ete eurentzat?

Dagonillak 6: eguaztena

Amboseli atsegiñez gogoan dogula, ba-goaz beste lurralde batera. Goizeko zortziterdietan urten eta Tanzania'ko muga ondotik, Kilimanjaro ospetsua egoaldean dogula, Tsavo'rantza joten dogu. Lurgorri-bideak: itzelezko autsa. Berebil banaka batzuk baño ez. Amarrak aldean, masai erritxo batean gelditu gara. Masai jendeari argazkiak ateratea guztiz debekatuta dago. Baña emen, turistentzat, ba-da orretarako baimena... berebil bakotzak 1200 peseta ordaindu ta gero! Aurrerago, beste geldiune bat: Shatani sutarriak ikusteko, laba-arrizko zelai aundi bat.

Amaikak eta laurenetan, Tsavo izeneko piztitegian sartu gara. Afrika'ko aundiena da, ta elefantez aberatsena. Zati bi ditu: sorkaldekoa ta sartaldekoa. Guk au baño ez dogu ikusiko. Baña ez da gitxi. Bien artean Euskalerrri osoa aiñako lurraldea osotzen dabe: 20.000 kilometro lauki. Bidearen ezkeraldetik 5 menditxo: «bost aitzak» deritxoe. Sartu ta laster, lurralde politagoa, urtsua: Mzima Springs izenekoa, Tsavo ibaiaren iturburua. Ordubeteko egonaldia egin dogu, ango hipopotamo, kokodrilo ta urpeko arraiñak ikusteko. Zugatzetan tximino asko. Le-ku ikusgarria.

Andik 37 kilometrora, gure safariko bigarren ostatua: Ngulia Lodge deritxona. Aldeona. Alderdi polita, mendiz inguratua alde batetik; bestetik, zelaigune zabala. 920 metroko goiberan aurkitzen da. Logelak eta jantokia guztiz ederrak. Ondo ta arin bazkaldu dogu.

Bazkalondoan, Tsavo lurraldearen zati bat ikustera goaz. Giro ederra, ezin ohea, gaur be. Zerua goibel. Iru ordu t'erdiko ibillaldia egin dogu, Tsavo ibaiaren ondotik jirabiraka. Amboseli'ko lur legorraren aldean, bestelako

da au! Baobab eta arkazia ugari, ta landa orlegiak. Elefante ta jirafa asko; danetariko gazelak (Thompson's, Impala, Hartebeest, Waterbuck eta Dikdik txikiak); hipopotamo ta kokodrilo bat edo beste; basurde, txakal, tximino ta abar... Baña elefanteak, batez be: 15.000 bizi ei dira Tsavo onetan, gitxienez. Ta bai aundiak dirala!

Ostatura itzuli, garbaldi goxo bat artu ta... afaltzera, kandelaz argitutako terrazeta batean. Giroa ta lekua, biak zoragarri: amesleku bat irudi. Guk afaldu bitartean, or datoz ostatu-aurreko ur-pozura, elefanteak eta basauntzak, lotara baño len egarria kentzera...

Dagonillak 7: eguena

Zazpiretan jagi ta zazpiterdietan gosaria. Ta zelako gosaria! Naranja-ura, meloi eta piña gozoa, korfleis esneaz, arrautza bi urdai-zatiaz eta lukainka bategaz, zenbatgura akeitesne, opiltxo, gurin eta mermelada... (Orrelakoak izan dira, ia beti, gure safari-aldiko gosariak). Goiz-agurra gure izkuntzan zelan esaten dan itandu dauskue serbitzari baltzak... ta laster asi dira, irribarrez, mairik mai, «egunon» esaka.

Eguraldia, gaur, beroago dogu. Zortziterdiak dira Ngulia ostatuleku ederretik urtetean. Ogei bat kilometro aurrerago, beste Lodge bat ikusteko gelditu gara: Kilaguni deritxona. Ederra au be!

Tanzania'ko muga aldera goaz, auts-bide luzean, Tsavo lurraldeetan zear. Bide alboetan, basidi, astonabar, abestruz eta elefanteak, talde aunditan, gurean ardi, basabei ta beorak ikusi oi diran lez. Alako baten, gitxi uste genduala, leopardo bi, eskuialdeko landan. Gure lau berebillak, amen esan orduko, or sartzen dira landa-barrura, bidetik urtenda, leopardo biok inguratu nairik. Baña oneik, tarte batetik, anka egin dabe. Dana dala, orra leopardoak be ondo-ondotik ikusi!

KILIMANJARO

Amaikak eta laureneta urten dogu Tsavo'tik. Ordu lauren bat geroago, Tanzania'ko mugan gagoz: Taveta deritxon errian. Muga igaroteko bear diran agiri erakuste ta beste zeregiñetan ordu-bete emon dogu. Tanzania aldetik lenengo erritxoia, Himo. Bide ohea emen. Lurra landuago: artoa, kafea, platanoak, palmondoak eta sisal-arlo aundiak. Etxetxo ugari bide ondoan eta mendi egaletan sakabanatuak. Bide bazterretan jende asko, umetxoak batez be, eskua jaso ta irribarrez «jambo» ta «jambo» diñoskuela.

Ordubatak eta laureneta Marangu Hotelera eldu gara. Auxe dogu Kilimanjaro'rako abiatze-lekua. Gu eldutean, ain zuzen, prantzes-talde bat abiatzen zan mendirantza, gazte baltz mordoia mendizorro aundiz zamatuak lagundurik. Bazkaria, ta serbitzua batez be, orain arteko txarrenak. Giro ona: 20-25°.

Dagonillak 8: barikua


Gosaldu ondoren, mendira igon nai ez daben gure taldeko lagunak (Ana Mari, Tere, Pilar, Mariñe, Mari-Juana, Mari-Karmen donostiarra ta Don Ino) berebil batean Mombasa'rantz abiatu dira. Ogei lagun gara, beraz, mendira igoteko. Ogeiontzat bost gidari eta 32 zama-eroale izango ditugu lagun. Ez da gitxi... Gertutze-lanak astiro egiten dira. Gidari nagusia, Emanuel, eta bigarren gidari, Hosea, aren anaia, aurkeztu yakuz. Gizon sendo ta jatorrak iruditu yakuz, lenengo berba egin orduko. Azkenez, tapa-tapa asten gara, lerrokada luzean. Goizeko amaikak eta laurenak dira.

Bidezabalez zazpi kilometro. Alboetan landara ta zugatz asko. Gu gorantza goazela, goitik beera eunkada ta eunkada andra-gizon eta ume, Nyerere lendakaria Marangu ra dotorrela-ta «ongi etorria» emotera.... Orduerdi ibilli

ta gero, bazkaltzeko egonaldi (iru ordu-lauren). Gero, aldazgora aundiago. Ordubietan Kilimanjaro Parkearen sarrera. Ordaindu bearra. Aurreratxuago, oroitarribat: Kilimanjaro'ra igon zan lenengo gizonaren irudia (Hans Meyer alemana): 1889'garreneko Urrillaren 6'an izan zan.

Mendibide zabala orain, bidezabal egiteko markatua. Alde bietan baso itxi-itxia. Tximino batzuk zugatzetan. Eguraldi baikaina: 20° gradu. Zelaigune bat igaro ta, bide-txigor batetik, gorantza. Laurak eta laureneta, basotik urteeran, argiune zabala: an goian, Mandara Hut mendietxea agiri da. Orra gure lenengo ekiñaldia burutu. Marangu Hotelik Mandara'ra bost ordu t'erdi ibilli gara.

Mandara Hut etxea, 2744 metrotan aurkitzen da (Marangu'tik 1300 metro inguru igoten da). Logela bi ta jantokia ditu. Beste etxetxo batean guarda-etxea ta sukaldea. Ostatu barri aundia egiteko asmoz, zimentarriak lurtean sartuta dagoz. Kanpoan oialetxe aundi bat, italiar talde batena. Etxe ondo an iturri ona. Afaria: sopa beroa, okela zatia, lusagar, idar, tomate ta ganerakoaz. Ogi gitxi. Tea ugari. Zazpiterdian ogera. Kanpoan otz.



Kenya ta Tanzania'ko lurraldeak.

ARANA'TAR SABIN'ERI BURUZ ZEAZTASUN TXIKI BAT

Noizean bein artseiko-zar-zaleak euren pozak izaten dabez.

Nik be bai lengo egunean, Loiola'ko euskal artxi-boan Arana'tar Sabin'eri buruz zerbait aurkitu nebanean.

Gauza txikia da, baiña Arana-zaleentzat jakingarria.

Paper zarrak arakatuz, arkatzez izki txiki-txikiz idatzita, zirri-borro bat aurkitu neban, Aita Zugazaga'tar Pilipa'k idatzia...

Jesulagun au Zornotza'koa eta "Jaungoiko Zale"ko zuzendari zan, Artzubiaga'tar Zirilo'ren lagun andia. Bilbo'ko "Jesusen Biotzaren Deia" aldizkarian asko idatzi eban, "Z.P." izen-laburtuaz.

Loiola'n bizi izan zan luzaroan eta an il zan 1928n. urtean.

Ba ditu A. Zugatzaga'k, Loiola'ko artxi-boan, bere jaioterri Zornotza'ri buruz olerki batzuk, naiko politak...

Ez dakit nori idatzi eutsan eskutitz au, baiña ori jakitea ez litzake asko kostako. Emen dozu!

"Nire lagun maitea":

"Zure azken "Euzkel-gaiak" txostenean, gai oneri erantzun gura deusazu: bardiñak dira euzkerazko "edo" eta "ala"?

"Parkatu egidazu zerbait zuzentzea..."

"1900n. urtean, urtarrillaren azken egunetan, zuk diñozun Jaun orregaz artu-emonak izan nebazan".

"Ezkondu aurretik iru eguneko "erretiroa" egin eban emen Loiola'n".

"Eta egia esateko, bere emazte izan zanari neuk emon neutsazan itzaldiak, eta EUSKERAZ emon be. Gaur andre ori alarguna da".

"Jaun" ori Arana'tar Sabin zala zalantzarik ez dago gero A. Zugatzaga'k esaten duana irakurri ezkeror".

"Nik Jaun orreri itandu neutsan: zergatik erabilten dozu "ala", Bizkaian erabilten ez dan eran?"

"Eta berak erantzun eustan, geroago baten ori agertuko dot... eta beste gauza asko..."

"Nik gero bere "Egutegi Bizkaitarra" (ormakua) eta bere "Umiaren Lenengo aizkidia" eta beste idazki asko irakurri nebazanean, konturatu nintzan..."

Eta gero onela amaitzen dau eskutitza:

"Ba zekien gure "irakasle Argiak" Bizkaia'n ez dala onela erabiltzen..."

GOIKOETXEA'TAR INAKI

ZER Bizkaieraz dogun aldizkari bakarra da.

ZER irakurteko erreza eta atsegintsua da.

ZER bizkaitarrentzat ulerterreza da.

ZER erriko euskereari laguntzeko egokia da.

ZER guztiok irakurri ta zabaldu bear dogu.

Egizu arpidedun barri bat.

Ekarri EUSKERAZALEAK'eri.

Ordez, liburu polit bat artuko dozu.

EUSKERAZALEAK

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.